

Otso elebakarraren alegia

Koldo Sagasti

Bazen behin otso txiki on bat, arku-me guztien jazarpena pairatzen zuena. Horrelaxe amesten zuen Jose Agustin Goytisolok aldrebeseko mundu bat, zeinean sorginak ederrak eta piratak zintzoak diren. Alderantzizko errealitate hori botereak eraikitzen dituen kontaketa ofizialen salaketa baino ez zen; zanpatzaileak, ardi larru jantzita, zanpatu moduan agertzen zaizkiguneko ifrentzuko errealitatea. Idazle katalanak irudikatutako buruz beherako mundua hauteskunde kanpainara eraman nahi izan dute Idoia Mendiaren publizitate taldekoek, baina aurrekoak ez bezala, aldrebeseko asmoek bultzatuta. Kalapitaren iturria izan den zorigaiztoko bideoan erdaldun elebakar

gizajoa da bildots baskoi ankerren intolerantzia jasaten duena. Euskaraz ez jakiteagatik administrazio publikoaren ateak ixten dizkiote, film laburraren arabera, baztertutako hiritar errukarriari. Beste testuinguru batean iragarkia barrregarria ere izan liteke (“Wazemank” telebista saiokoek ere egin dituzte lehenago horrelako parodiak, pertsonaien rolak aldatuz ohiko egoera bat surrealista bilakatzeko, alegia). Baina, eguneroko bizimodua euskaraz egiteko ahaleginean, administrazioarekin behin eta berriz talka egin dugunontzat iraingarria da, lizuna. Guk ongi baitakigu zer den hizkuntza ofizialetako bat erabiltzeko eskubidea baliatu nahi izateagatik bazterkeria nozitzea. Izan ere,

euskaraz hitz egitea eskubidea da, bermatzeke dagoena, baina eskubidea azken batean. Eta funtzionarioa izatea, aldiz, ez. Badago mundu oso bat administrazio publikotik harago. Funtzionario izan gabe ere bizi daiteke. Akaso, herrialdeko bi hizkuntza ofizialak jakiteak betebeharrekoa izan beharko luke Eusko Jaurlaritzan lan egiteko. Eta, igerian ez dakienak suhiltzaile izateko ateak itxita dituen bezala, hizkuntza-irizpide hori betetzen ez duenak ezingo luke inolaz ere bazterkeriatzat hartu administrazio publikoan onartua ez izatea. Baina hori, agian, alegiazko mundu batean izango litzateke, otsoak onak diren eta Euskal Herrian euskaraz bizi daitekeen errealitate paralelo batean. •

Kroketak

Mirari Martiarena

Gustuko dut sukaldean aritzea. Umetatik aritu izan naiz eltze artean saltsan. Amaren, bi amonen eta izebaren ondoan. Jolaserako eta eskulanetarako aitzakia izaten zen kroketak biltzea. Forma eman, ogi birrindutatik pasa, arrautzatan eta, ondoren, berriz ere ogitan. Neguko larunbat arratsalde euritsueterako plan ezin hobea izaten zen askotan. Hiru ahizpok katean egiten genituen askotan. Behin koxkortutakoan neroni hasi nintzen bexamela egiten. Ongi ikasita nituen pausu guztiak eta esperimenduak ere egiten nituen. Ez dut ezkutatuko erretako kazuelak ere izan zirela tartean, baina ordutik asko hobetu dut nire kroketak egiteko tek-

nika. Ez dut esango munduko kroketarik onenak egiten ditudanik (beno, lagun artean egiten dut). Beraz, gaur ere harro idatziko dut nire uste apalean munduko kroketarik goxoenak egiten ditudala. Hurri, amak eurekin oporretara joango nintzela esan zionean, 5 urteko semeak ea kroketak eramango nituen galdetu zion. Nire alde zerbait esan nahiko du horrek ezta? Aste honetan marrazki bat jaso dut eta honelaxe zioen: «Asko maite zaituenak, kroketak egingo dizkizu». Azken urtean egin ditudan oparien artean daude, irribarre egiteko ispilu bat, giltzatako bat, liatzeko tabako gordetzeko larruzko funda bat eta GAUR8ko zutabe bat. Bihotzez, ilusioz eta gustu handiz egindako opariak izan di-

ra. Bakoitzari esanahi berezi batekin egingadakoak. Kroketen esaldia, ordea, barruraino iritsi zitzaidan. Argazkia bidali zidanak kroketak eskatu zizkidan irudia bidali baino astebete lehenago eta izozkailuan nituen gutxi horiek eman nizkion nire mai-tasun osoz. Etxera bazkaltzera edo afaltzera gonbi-datzen ditudanei kroketak egin zalea naiz. Lana ematen dute, baina gero neronek ere gustura jaten ditut. Agian hemendik aurrera ez dut burua hautsiko hari zer oparitu eta honi zer egin. Porrotzek esaten duen bezala: sabela betetzeaz gain bihotza ere betetzen dutelako. Zuzenean kroketak egin eta kitto. Bereziki, tartak egiten abila ez naizelako. •